

Hugh Brady, Ipar Irlandako Sinn Féineko ordezkaria

# «Ingelesak alde eginez gero hobeto konponduko genituzke gure arazoak»

**D**erry hiriko Sinn Féin alderdiko zizegotzia da Hugh. Hamasei urterekin jada sei aldiz atxilotu zuten. Hogeitamabost urte ditu eta horietatik zortzi gartzelan igaro ditu. Ipar Irlandako egoeraz ihardun dugu. Egoera gordina baina, aldi berean, Hugh-ek baikortasunez ikusten duena, batik bat, behin eta berriro errepikatzen duenez, «ingelesak Irlandatik ateratzen badira».

**IPAR IRLANDAN** bizi duten enfrontamendu zibil egoera gogorak bete betean eragiten dio Derryko zinegotzi honi. Aurten, Heriotzaren Eskuadrak talde paramilitar lealistak jadanik 30 katoliko hil ditu. Horietatik lau Sinn Féinekoak, bi zinegotziak ginera. Heriotzaren Eskuadrek Hugh ere sarritan mehatxatu dute heriotzarekin eta ondorioz ez du inoiz etxe berean lo egiten, beti aldenik alde dihardu. Egoera gogor honen aurrean bere jarrerak zirraraz sorrazten du gorpuztean, «ni errepublikarra naiz eta orain arte bezala

jarraituko dut lanean, nabiz eta badakidan edozein egunetan agian hil egingo nautela».

**A.** Nola baloratzen dituzue errepublikar eta lealisten artean udaran izan ziren elkar hizketak?

**H.B.** Elkar hizketa horiek Ingalaterratik jarritako erizpideen inguruan burutu ziren. Bakea ekarriko ez zuten elkar hizketak ziren. Horrez gain, guk haietan parte hartu ez genuenez, ez dakigu barruan zehatz mehatz zer pasatu zen. Ingelesen aldetik ez zegoen bake borondateirik; helburua, finean, IRA-

rekin amaitzea zen.

**A.** Zergatik egin zuten porrot elkar hizketek?

**H.B.** Sozialdemokratak eta leialistak ez zetozen bat independentzia eta beste funtsezko gaietan. Bost pertsona zeuden eta euren artean ideiak hain ziren desberdinak, ez zela posible akordiora heltzea.

**A.** Sozialdemokratekin hitz egitea oso zaila bazen, suposatzen da Sinn Féinarekin hitz egitea are zailago izango dela, ez?

**H.B.** Protestante eta leialistek Ingalaterrarekin batuta jarraitzea nahi dute. Ingelesak diote ez dutela interesik Irlandan baina hori ez da egia, bestela ez lituzkete

izango bertan 30.000 soldadu. Errepublikarrek dioguna da, ingelesak Irlandatik alde egiten badute, irlandarrek hobeto konpondu ahal izango ditugu gure arazoak.

**A.** Baina zeri deitzen diozue ingelesak alde egitea: populazioak, poliziak eta armadak...

**H.B.** Ingeles armada eta ingeles gobernuari buruz ari naiz. Orduan IRAk borroka armatua utziko luke.

**A.** Eta orduan posible izango litzateke errepublikar eta leialisten arteko elkar hizketa?


**H.B.** Bai. Lehenago ere hitz egin izan dugu, eta ingelesak ateraz gero berriro sortuko litzateke elkar hizketarako giroa, leialistek ere Irlandaren oparotasuna nahi dute eta.

**A.** Hitz egin, akordio batera heldu eta buruen urratsa zein litzateke?

**H.B.** Irlanda osorako gobernu bakarra jartzea.

**A.** Baina onartuko lukete,

■ «Maitatzea eta bakea nahiago ditut Irlandara joan eta bertan hila izatea baino» ●



Hugh Bradyk heriotz mehatxua du gainean eta inoiz ez du leku berean lo egiten.

*bada, protestanteek hori?*

**H.B.** Nik uste dut baietz, eurak ere, hauteskundeen bidez, bertan izan daitezkeelako.

**A.** *Eta protestanteek guzti borretarako prest baleude, zein da arazoa, bada?*

**H.B.** Arazoa ingelesak dira. Eta arazoa da, ingelesak behin baino gehiagotan aitortu duten moduan, Ingalaterrak ezin duela IRA militarki suntsitu.

**A.** *Enfrentamendu zibila areagotu egin da azken boladan.*

**H.B.** Bai. Aurten Heriotzaren Eskuadrakoek 30 zibil katoliko hil dituzte. Auzo katolikoetara joan eta koxtetik edonor tirokatzen dute, harrapatzen dutena harrapatuta.

IRAK aurten Heriotzaren

Eskuadretako zortzi kide hil ditu, eta duela hiru aste katoliko bakoitzeko IRAk talde horietako hiru hilgo zituela iragarri zuen. Ekintzen al-

Komunitateen arteko borroka gogortzen saiatzen ari dira. Areagotze honekin, azkenean, katolikoek IRARI armak utz ditzaten eskatzea

■ **«Gu hiltzen gaituzte, gu goaz gartzelara, orohar guk sufritzen ditugu gatazka honen ondorioz txarrenak; baina ingelesak atera arte ez da bakerik izango» ●**

detik IRAk ere nahiko akats izan ditu. Hala ere, IRAk onartu egin ditu bere akatsak eta aurrerantzean errakuntza horiek gerta ez daitezten saiatuko dela. IRA errudun sentitzen da akats horientatik, baina errudun nagusienak horrelako enfrentamendu bat aurrera jarraitzen uzten dutenak dira.

bilatzen ari dira.

**A.** *Populazioak nola erreakzionatu du elkar bizketa eta enfrentamenduen areagotzearekin.*

**H.B.** Nazionalistek ez zituzten negoziazio horiek onartu, ez bait ziren zintzoak izan. Orohar, irlandar guztiok nahi dugu bakea,

eta gehien errepublikarrak, zalantza barik. Gu hiltzen gaituzte, gu goaz gartzelara, orohar guk sufritzen ditugu gatazka honen ondorioz txarrenak. Baina ingelesak atera arte ez da bakerik izango.

**A.** *Bukatzeo, beste zerbait esan nahi zenuke?*

**H.B.** Guk batez ere eta guztien gaintik bakea nahi dugu. Maitatzea eta bakea nahiago ditut Irlandara joan eta bertan hila izatea baino. Hemendik hamar urtetara ez ditut ikusi nahi nere seme-alabak lehergailuak jartzen.

Irlandarra ez banintz, Euskal Herria hartuko nuke aberri moduan, euskaldunak bait dira pertsona atsegin eta beroenak.

**Xabier Letona**